

**BERANGOKO UDAL DANTZA ESKOLA
ESCUELA MUNICIPAL DE DANZA DE
BERANGO
2019-20 IKASTURTEA**

TARIFAK

ESPEZIALITATEAK :

DANTZA SORTZAILEA

5 eta 7 urte bitarteko ikasleei zuzenduta

Helburuak:

- Umeek sortzeko, irudikatzeko eta behatzeko duten aukerak handitzea...
- Dantzaren elementuak erabiltzeko gaitasunak handitzea eta adierazpen gaitasunean duten eragin positiboa ulertzea.
- Norberarekiko harremana, emozioak eta sentipenak lantzea, taldeko harremanetara heldu arte.

DANTZA KLASIKOA

8 urtetik gorako ikasleei zuzenduta

8 eta 10 urte bitartean, balletaren oinarrizko mugimenduak eta hitzak ikasten dituzte ikasleek. Antzerki dantza mota guztien oinarri teknikoa da eta, horren bitartez, mugimenduaren ildoak, ardatza eta oreka, jarrera eta koordinazioa, malgutasuna eta grazia eraikitzen dira.

Oinarrizko mailan eta erdi mailan ikasten den teknika klasikoa landuagoa da, eta mugimenduzko esaldiak zailagoak dira. Mugimendu horien artean, biraketak, saltoak eta puntako zapatiletan egindako lana daude. Ikasketetan aurrera egiteko, mugimenduaren adierazpena eta dantza esaldien interpretazioa landuko dira.

Espezialitatea	Sortzailea	BALLET
Erroldatuak	12€/hilero	24€/hilero
Ez erroldan	18€/hilero	36€/hilero
Klase kopurua astean	1	2

Taldeak sortzeko kontuan izango dira adinak, mailak eta espezialitateak. Ordutegia 17:30etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera, irakasleekin adostu ondoren.



BERANGOKO UDAL DANTZA ESKOLA



**BERANGOKO UDAL DANTZA ESKOLA
ESCUELA MUNICIPAL DE DANZA DE BERANGO**



IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

2019-20 Ikasturtea

Administrazio gestioa/ Gestión administrativa: **Berangoko udala**

Gestio pedagogikoa eta artistikoa/ Gestión pedagógica y artística: **CDART. Ana Rosa Tercero**

Tokia/ Lugar:
**C.P. Berango-Merana H.I.
(gimnasio)**

BERANGOKO UDAL DANTZA ESKOLA

Berangoko Dantza Eskola 2014ko urtarrilean ireki zen. Udaleko gobernu taldearen ekimenez Ana Landa alkate and. buru dela.

Udala Arduratzen da administrazio gestioaz.

Ana Rosa Tercero CDART dantza zentroa arduratzen da gestio pedagogikoa eta artistikoa zuzentzeaz.

Helburu nagusia kalitatezko dantza eskola bat sortzea izan da, eta dantza herrira hurbiltzea, prezio herrikoiak jarriz.

Dantza eskola irekiak eskainiko dira, hiruhilero egindako lana erakusteko.

Ikasleek koreografiak dantzatu eta antzetzeko aukera izango dute, ikasturtean zehar.

Beste elkarte eta entitateekin elkarlanean aritzeko aukera egongo da, Berangoko bizitza kulturala aberasteko xedez.

Ordutegiak, taldeak eta espezialitateak handitzeko, kontuan izango dira ikasleen nahiak.

TALDE PEDAGOGIKOA

Dantza eskolak ematen dituztenak esperientzia handiko profesionalak dira.



ANA ROSA TERCERO.

- Dantza klasikoaren pedagogian lizentziaduna.
- Nazioarteko jardunaldietan irakasle gonbidatua.
- Begoñako Andra Mari irakasleen unibertsitate eskolako irakaslea.
- Hizlaria Deustuko unibertsitatean.
- Irakasleen prestakuntzarako GARATU ikastaroak eman ditu.
- Dantza klasikoa irakatsi du 30 urtez.
- CDART zentroko zuzendaria, koreografoa eta irakaslea.
- Hainbat sari irabazi ditu koreografo eta enpresari moduan egindako lanagatik.

Dantza ikasketei buruzko zalantzak galdetu irakasleei.



GRACIELA ORIO

- Gasteizko Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionalak emaniko Dantza Klasikoaren Titulu Profesionala (2002).
- Goi mailako Dantza Ikasketak, 3. Maila Dantzertin.
- Burgoseko Dantza Profesionalaren Eskolan, dantza ikasleentzako Psikologia. 2015.
- Elvira Ubierna Royal Academy of Dancing akademian 5. Maila. 2008 eta 1996.
- Piano eta musika hizkuntza Iruneko Kontserbatorioan. 1998.
- Elikadura jokabidearen nahasmenduak. EHU.
- 12 urteko esperientzia, 2007tik aurrera, dantza irakasle bezala.

BERANGOKO UDAL DANTZA ESKOLA
danzacdart@yahoo.es